

# **ENPRESAREN IDEIA**

## **BEHARRAK DETEKTATZEA**

Gure gizartean behar handi asko asetzen ez direla badakigu, ezinezkoa baita gizarte perfektu batean bizitzea, badakigu hori utopia bat dela. Alor asko dira hobekuntza bat behar dutenak; jasangarritasuna, segurtasuna, hezkuntza, osasungintza, pobrezia...

Guk hobekuntza behar duten esparru horien artean, bat aukeratzeari ekin genion, eta garrantzitsuena, segurtasunaren gabezia iruditu zitzaigun. Segurtasuna esparru oso zabala denez, guri gehien eragiten digun eta gaur egungo gizartean asko entzuten den arazo larri batean sakondu nahi izan dugu; kaleetako segurtasun faltan hain zuzen ere.

Ikusten dugu, gauetan batez ere, baino ez beti, lapurreta eta indarkeria kasuak ugariak direla gure artean. Egia da batzuk larriagoak dira besteak baino, besteak beste bortxaketak, baina indarkeria eta lapurreta guztiak eragotzi nahi ditugu ahal den neurrian.

Beraz, arazo honi aurre egiteko, eta indarkeria eta lapurreta ahal bezain beste sahisteko, asmatu gabe dagoen zerbait sortu nahi dugu, segurtasuna bermatu beharko luketen pertsonak, hau da, poliziak, ahalik eta azkarren erasoren bat gertatu den lekura iristeko.

Hein batean asmatuta dagoen ideia da, azken finean eraso edo lapurretetan mobiletik dei bat eginez poliziak iristen direlako. Halere, guk mobila hartu, poliziaren zenbakia jarri, eta deitzeko prozesu horren denbora murriztuko duen aparatu bat asmatu nahi dugu, horrelako kasuetan oso garrantzitsua baita galdutako segundu bakoitza.

## **GURE EKARPENA DEFINITZEA**

Gure indarguneak eta ekintzailetasun maila aztertu genituen, eta ondorio indibidual eta kolektibo batzuk atera genituen.

Ondorio indibidualetan, indargune desberdinak ditugula ondorioztatu genuen galdetegi baten bitartez. Galdetegi horretan, ekintzailea den pertsona baten 7 ezaugarrietatik guk banan-banan zenbateraino betetzen ditugun azertu genuen, eta ondorio esanguratsuenak hauek izan ziren: Eneko Apaolaza taldekidearen kasuan, era guztietako jendearekin eta hainbat sailetako gaietan negoziatzeko gai dela ikusi genuen. Bestalde, ideia berriak sortzeko oso gai ez zela ikusi genuenez, enpresari aspaldiko jakintsuen plan eta pentsamenduak aplikatuko dizkion pertsona dela esan daiteke. Markel Susperreguik, bere buruarekiko konfiantza asko duela ikusi zuen, taldearen lidergoa eramateko pertsona egokia dela ondorioztatuz. Haritz Otaegi lanerako oso pertsona baliotsua denez, sortu dugun ideia aplikatzen lanean arituko da. Bere buruarengan ez du konfiantza handirik, horregatik guk lagunduko diogu atal horretan. Elkarreragina beharrezkoa izango da proiektua egin ahal izateko. Azkenik, Ibon Irurieta negoziatzaile ona da, eta beraz hainbat enpresa edo talderekin ideien hartu-emanak egin ahal izango dugu. Horrez gain, aldatetara egokitzen ona da, eta beraz oztoporen bat izaten dugunean behar-beharrezkoa izango dugu bere laguntza iluntasunetik argi-izpiak sartzen diren gunera jauzi egiteko.

Bestetik, talde osoaren ekintzailetasun-erakundeak ikusita, hainbat ondorio atera ditzakegu. Gure alderdi onenak lanerako gaitasun eta ahalmena, gure buruan dugun konfiantza eta lidergoa dira. Beraz, gure proiekturako ikus dezakegu indargune horiek gure enpresaren funtzionamenduan eragina izango dutela. Ideia berriak sortzeko eta horiek era egokian antolatu eta aplikatzeko onak gurea dakusagu. Horrekin batera, lana egiten ondo egiten dakigunez, gure sorkuntzarako ahalmenak emandako ideiak era egokian aplikatzen jakingo dugu. Hori da enpresaren helburua: ekintzailea izatea. Gure ustez, horretarako ideia berriak eta gizartean lekua izango dutenak topatu behar dira, eta horiek modu egokian aplikatzeko lan egiten jakin. Hori dela eta, gizarteari behar duen ekarpena egiteko gai garenez, gai batean jarri dugu arreta: kaleko erasoetan. Gure ekarpena, beraz, ezaugarriak kontuan harturik, hor ahalik eta gehien lan egitea da.

Platonek zioen bezala, adimen arrazionala, hau da, lanerako eta ikasketetarako gaitasuna edukitzea da herrialdeko agintariak aukeratzeko irizpidea. Horiek dira bere entelekiatzeko gizartean lekurik garaiena dutenak; gehienetan, filosofoak. Gure taldearen ezaugarriak

ikusita, multzo horretan sartzen garela ikusten dugu, intelektualisten barnean. Beraz, adimen arrazionaldunak gara. Baina hori ez da nahikoa enpresa sortzeko, eta horretarako irritsezko arima eta suminezkoa dutenak beharko ditugu. Platonen hiri idealean zaindariak suminezko arima dutenak dira. Ez dira oso azkarrak izango, baina hainbat gaitasun izango dituzte; hala nola kemena eta adorea. Horiek enpresako langileen artean lekua izango dute, baina nagusiki irritsezko adimena dutenek. Trebetasun gutxi duen jendea da intelektualismoaren barnean, eta beraz eskulana egingo dute.

Geroago azalduko dugu enpresako funtzio bakoitzerako zein langile beharko dugun, baina ideia nagusia hori da: gure ekarpena eta hor nola lanari ekin. Lanari ekiteko filosofiaren aipamenek azaltzen dute enpresaren antolaketa hierarkiko eta ideala, ideala izatetik erreal izatera pasatuko dena.

## **BRAINSTORMING**

### **BURUTAZIOAK:**

- Giltzatakoa botoiarekin
- Aplikazioa giltzatakoari lotzeko
- Soinua ateratzeko tresna
- Kaleetan kamerak jartzea
- Defentsa pertsonalerako klaseak
- Bizkartzainak kontratatzeke aplikazioa

Taldeko kide bakoitzak ideia asko proposatu ditugu, batzuk gure beharrarekin zerikusia dutenak, eta zentzurik ez duten beste batzuk. Noski, taldekide bakoitzak proposatutako ideia guztiak errespetatu ditugu, nahiz eta zentzurik gabekoak izan. Baina jarraitu aurretik, gogorarazi behar dugu gure ideia gizarteko segurtasuna bermatzea dela eta ideiak horri lotuta daudela gure proposamenak.

Burutazio horiek hauek izan dira: giltzatakoa botoiarekin, aplikazioa giltzatakoari lotzeko, botoi bat duen pultsera, soinua ateratzeko tresnaren bat, kaleetan kamera gehiago jartzea, defentsa pertsonalerako klaseak ematea, bizkartzainak kontratatzeke aplikazioa, defentsa pertsonalerako gailuak saltzeko aplikazioa...

Soinua ateratzeko tresna bat sortzen badugu aukera ona litzateke, eraso baten aurrean gertu dagoen jendea konturatzeko eraso bat edo zerbait larria gertatu dela, horrela zu laguntzera joateko. Kaleetan kamerak jartzen baditugu, herritarren lasaitasuna lortuko genuke, ez guztiz leku guztietan ezin baitira jarri baina orokorrean, jende gehiena ibiltzen den lekuetan eta ahalik eta toki gehienetan jarriko genituzke. Defentsa pertsonalerako klaseei dagokienez, oso ideia interesgarria iruditzen zaigu, gazteak garenean ikasi beharko genukeen zerbait da eta. Honela, erasoaldian bertan ez lukete behar izango beste baten laguntza, haien kabuz lortuko lukete defenditzea. Bizkartzainak kontratatuko aplikazioa ideia ona da, baina ez da ideia berritzailea, orduan ez du garapenerako ahalmenik. Azkenik, giltzatakoa botoiarekin sortzea ideia berritzailea iruditzen zaigu eta honek etorkizun zoragarria eta disdiratsua edukiko lukeela benetan pentsatzen dugu. Aplikazioak giltzatakoarekin lotura izango luke, izan ere, guk sortutako giltzatakoa aplikazio batekin lotuko bagenu, horrela etorkizunari begira oso interesgarria eta erabilgarria izango litzateke.

Aurrez aipatutako hiru ideia horiek egokiak izan daitezke enpresaren proiektua egiteko. Hasieratik ikusi dugu horiek zirela ideia interesgarrienak, eta beraz ez dugu arrazoirik ikusi horiek ez aldera batera uzteko. Horregatik, giltzatakoa sortzea erabaki dugu botoiarekin, aplikazioa egingo dugu botoiarekin konektatzeko. Eta, gainera, defentsa pertsonalerako klaseak ematea pentsatzen dugu, gure helburua (kaleko erasoak saihestea) betetzeko. Ez dakigu ziur gerora ideia horiek beteko diren edo ez, baina gure proposamena hori da.

Ideiak baztertzen joan gara eta azkenean lau ideiekin geratu gara. Geratu diren burutazioak oso onak direla pentsatzen dugu, baina batekin bakarrik geratu behar gara eta horregatik banan-banan baztertu ditugu ideiak.

Lehenengo defentsa pertsonalerako klaseak kendu ditugu. Ideia hau oso ona zen, geroz eta jende gehiago dagoelako defentsa pertsonalean interesatua. Baina hala eta guztiz ere, ez zitzaigun berritzailea iruditzen, jada mota honetako elkarte edo enpresa asko daudelako eta gure enpresaren helburu nagusietako bat, zerbait berritzailea sortzea delako. Jada hiru produktuekin, pultseraren ideia deuseztatzea erabaki dugu, izan ere, gure gailua guretzat

garrantzitsua den zerbaitekin lotzen dugu, giltzatakoa adibidez, beti gainean eramaten dugun zerbait delako. Ondorioz, pultseraren arazoa, guretzat baliozko zerbait ez dela da eta horregatik, giltzatakoa hautatzea erabaki dugu. Baina hala eta guztiz ere, oraindik bi ideiekin gelditu gara: giltzatakoa botoiarekin eta aplikazioa giltzatakoari lotzeko. Halere, bi ideia hauek oso onak direla iruditu zaigu, eta hauek elkartzea erabaki dugu. Lehenik eta behin, giltzatakoa botoiarekin erabiliko dugu, biktimak direnak, gailu hau eskuragarri edukitzeko giltzekin batera, oso baliotsua den gauza bat direlako giltzak. Baina hauetako gailu asko egongo direnez, aplikazio bat sortuko dugu, giltzatakoaren arabera pertsona hori identifikatzeko, eta honela, gailuari ez zaio erabilera desegokirik emango, pertsona baten izenean eta ardurapean egongo direlako.

### **AUKERATUTAKO IDEIA**

Giltzatakoko berezi bat asmatuko dugu, elektrizitate-sistema konplexu baten bitartez barruan botoia izango duena. Horrez gain, sakelakoan aplikazio bat sortuko dugu, botoiarekin konektatuta egongo dena. Beraz, giltzatakoa pertsona jakin batena izango da. Kaleko segurtasuna bermatzeko, bereziki neska eta emakumeen kasuan, bortxaketak eta erasoak batez ere haiek jasaten dituzte eta; giltzatakoko botoia zapal dutakoan poliziari deituko zaio, aplikazioarekin botoia lotuta dagoenez emergentzia-deia aktibatuko baita. Gainera, mugikorraren kokapena aktibatuta eduki beharko denez giltzatakoak funtzionatzeko, polizia bertaraino iritsiko da biktima salbatzera. Edonork jolasean botoia ez zapaltzeko identifikazioa sortu dugu: botoiak nagusia du, eta beraz emergentzia-deien erantzulea hori izango da.

### **ENPRESA IDEIA**

Enpresa txiki bat sortuko dugu, giltzatakoko botoia jarriko duena. Horrez gain, sakelakorako aplikazioa asmatuko dugu, informatika teknikarien laguntzaz. Botoia eta aplikazioa izen eta abizen batzuei lotuta egongo dira. Botoia zapaltzean erasoren baten aurrean, sakelakotik poliziari deia egingo zaio, eta sakelakoaren kokapenera gerturatuko dira.

Enpresa giltzatakoko berezi horiek sortzeaz arduratuko da azpikontrataturako elektrifikazio-enpresen laguntzarekin, eta **informatikariak** edukiko ditugu.

Horiek, batetik, hasieran aplikazioa sortuko dute, eta botoiak aplikazioarekin lotu beharko dituzte. Gainera, aplikazioan hobekuntzarik egin behar bada, edo arazoren bat baldin badugu horiek konponduko dute.

Bestetik, enpresak ekarritako botoia giltzatakoan ezartzeko aldaketak egingo dituzte: txip pertsonalizatua jarriko dute, sakelakora konektatzeko ezaugarriak izango dituen eta beraz deia bideratu ahal izango duena. Informatikariek izango duten aplikazio batetik identifikazio zenbaki bat jarriko zaio txip bakoitzari. Hori egindakoa botoia ongi egongo da. Banatzea soilik faltako da.

Laburbilduz, enpresa proiektua hori izango da: bulegoetatik objektuen funtzionamendu egokia bermatuko da hainbat informatikariren eskutik. Bestetik, arduradun batzuk egongo dira bezeroari arreta eskainiko diotenak eta horien eskaeraren arabera, giltzatakoak egingo dizkiguten enpresei eskaerak egingo dizkietenak. Informatikari batzuek eta erosketasalmenta arduradunek egingo dute lan.